



# MARRAZKI LEHIAKETA

## OLENTZERO ETA MARI DOMINGI 2023

*Aurten Olentzero eta Mari Domingi berriro Ikastolan eta kaleetan izango ditugu bisitan.*

*Ongi etorri festa prestatzen ari den taldeak (besteak beste, gure Ikastola ere dago tartean) **MARRAZKI LEHIAKETA**n parte hartzeko gonbidatzen zaitu. Hauek dira oinarriak:*

- **ZER EGIN BEHAR DUZU PARTE HARTZEKO?** *Sortu irudi bat, eta, epaimahaiak hala erabakiz gero, irudi hori Olentzero eta Mari Domingiren jaiaren kartelarena izan liteke.*
- **ZER EGON BEHAR DA IRUDI HORRETAN?** *Gutxienez Olentzero eta Mari Domingi egon behar dira; hortik aurrera, zure sormenak, orijinaltasunak eta senak iradokitzen dizutena.*
- **NOLA EGIN BEHAR DUZU IRUDIA?** *Hori librea da: A3 ala A4 bat, eskuz ala ordenagailuz, kolorez ala zuri-beltzez, errotuladoreak ala margoak erabiliz... Zuk zeuk aukeratu dezakezu nola egin.*
- **ZENBAT URTE IZAN BEHAR DUZU PARTE HARTU AHAL IZATEKO?** *2-12 urte bitartean (HH eta LH) bazaude, aukera duzu zure proposamena aurkezteko.*
- **NON AURKEZTU BEHAR DIRA IRUDI PARTE-HARTZAILEAK?** *Marrazkia zure tutoreari eman behar diozu. Garrantzitsua: parte-hartzaileek ez dute euren izena idatziko atzealdean, baizik eta **telefonozenbaki bat eta bere adina**, epaimahaiak, hala beharko balu, eurekin harremanetan jartzeko.*
- **NOIZ ARTE DAGO DENBORA PARTE HARTZEKO?** *Gehienez jota, **azaroaren 16ra** arte. Egun horretan, Ikastolako epaimahaiak aurkeztu diren lan guztiak bilduko ditu.*
- **ZER LORTUKO DU LEHIAKETAKO IRABAZLEAK?** *Ikastetxe bakoitzean 50 €-ko bi sari egongo dira, ikasmateriala erosteko. Horrez gain, ikastetxe guztietako irabazleen artean aukeratuko den irudia Olentzero eta Mari Domingiren jaiaren kartelean agertuko da.*



*Bestalde, abenduaren 24an jasotako marrazki guztien erakusketa egingo da Herriko Plazan. Norberak bere marrazkia jasotzeko interesa balu, har dezala egun horretan 14:00etatik aurrera*

*Anima zaitzez!! Olentzero eta Mari Domingiren festaren kartela zurea izan daiteke!!*